

# Etxe hutsak, eskubide hutsalak

## Etxebizitza hutsak Donostian:

Auzoa	Etxebizitza hutsen porzentaia
Aiete	%11
Altza	%12
Amara Berri	%18
Antigua	%20
Bidebieta	%11
Egia	%15
Erdialdea	%31
Errotaburu	%9
Gros/Ulia	%19
Ibaeta	%23
Intxaurreondo	%12
Loiola	%19
Mirakontxa	%23
Ondarreta	%23
Parte Zaharra	%21

Etxebizitzarena arazo larria da gure gizartean. Are larriagoa Donostian. Izan ere, Europa osoko etxebizitza metro karratu garestiena gure hiriko kale batean dago.

Etxebizitza hutsak erabiltzea nahikoa ote dagoen premia asetzeko?

Asier Coloma

**E**txebizitza erostea zientzia fikzioa da ia, baina alokatzea ere ez da lan samurra. Bai erostea, bai alokairuan hartzea, garestiegia da patrika gehientsuenentzat. Eta Donostian are gehiago. Europako etxebizitzarik garestienak topa ditzakegu gurean, eta joera horrek luze joko duela baieztatzen datuak daude. Izan ere, Donostiakoak dira Estatu espainiarrean eraikitzen diren etxebizitza berri garestienak. Iazko abenduan Espainiako Tasazio Elkarteak eginiko ikerketaren arabera, gurean, batez beste, metro karratuko 2.788 euro ordaindu behar dira etxebizitza berrietan; Gasteizen, 2.564 euro; Bilbon, 2.182 euro eta Iruñean 1.739 euro. Gainera, batez bestekoa bikoiztu egiten da Donostiako zenbait tokitan. Esaterako, Erdial-

deko Getaria kalean, 5.102 euro ordaindu behar dira metro karratuko.

Beste ikerketa baten arabera, Erdialdeko Hernani kalea da etxebizitza metro karratua garestien duen Europako kalea. Alajaina! Bistan denez, Donostiako etxebizitzaren prezioa gehiegizkoa da. Hainbat faktorek eragiten dute etxebizitzaren prezioa hain garestia izatea. Etxebizitza asko hutsik izatea da faktore horietako bat.

### Etxebizitza hutsak.

Euskal Herriko datuak kezkarriak dira. Euskal Herriko bost etxebizitzetatik bat hutsik dago. 1999an egindako ikerketa batek ondorengo datu gordinak agertu zituen: Araban, 112.271 etxebizitzetatik 19.187 hutsik daude; Bizkaian, 443.188 etxebizitzeta-



Alberto Eloseggi

Donostia etorri zergo, 2001eko abenduan egindako ikerketa baten honakoa azaldu zuen. Donostian, 82.684 etxebizitza daude eta horietatik 14.208 hutsik. Auzo-uzo azterketa eginez gero, Erdialdeak du etxebizitza huts gehien. Era berean, Erdialdean dira etxebizitzak garestien. Beraz, geroz eta metro karratu garestiagoa izan, geroz eta etxe huts gehiago egon ohi da.

Nahiz eta Donostian etxebizitza franko hutsik egon, etxebizitzaren eraikuntza etenik gabekoa da. Auditx, Akular eta Lotolako lbaierentzako proiektuak esanda, koaren adibide dira. Denak den, etxeak eraikitzen jarraitzea ez da harrizkoa. Donostian 50 bat higiezin agentzia daude, eraikuntza enpresa ugari dago, banketxeek ere kredituen bidez diru asko mugitzen dute arlo honetan... etxebizitzaren eraikuntzak errentagarria da askorentzat.

### Bereziki gazteen arazoa

Datua objektiboa da, gazteek geroz eta beranduago alde egiten dute gurasoen etxetik. Erroste

ahalmena etengabe behera doan heinean, etxebizitzaren prezioak, errosteko zein alokairuan hartzeko, neurri gabe igo dira. Hori dela eta, erabat kezkatuta daude Duina Gazte Koordinadorako lagunak eta kanpaina bat martxan jarri dute etxebizitza

## Erdialdean dago etxe huts gehien

hutsen erabilera sustatzeko. Gazte koordinadora honek gazteen bizi baldintza hobetzea du helburu. Koordinadorak Itxaso Legorbururen arabera, "etxebizitzaren prezioen izugarriko gorakadak, pertsona guztion oinarritutako eskubide izan behar lukeen zerbait, hau da, etxebizitza duina eskuratu ahal izateko eskubidea gutxi batzuen pribilegio bihurtu du".

Herni-erakundeek arazoa konpontzeko hartu dituzten neurrien aurrean, jarrer kritikoa azaldu dute Duina Koordinadora-koek. "Ekimen publikoak ez du inolako diru inbertsiorik egiten ez lurrak erosteko ez gizartearen oinarritutako etxebizitza politika aurrera eramateko. Hauteskundeak direnean gogoratzen dira arazoak, eta beti ere botadak eskuratzeko asmoz", salatu dute.

### Ba ote irtenbiderik?

Instituzioek proposatzen duten irtenbidea argia da. Gehiago eraikita asetu nahi dute jendearen etxebizitza beharra. Babes ofizialeko etxeak eraikitzea da arazoari irtenbidea emateko tresna nagusia. Behar handiena duten gizataldeentzako, aldiz

tik 71.186; Gipuzkoan, 265.798 etxebizitzetatik 47.230; Nafarroa Garaian 224.927 etxebizitzetatik 60.161; Lapurdin 126.366 etxebizitzetatik 31.755; Nafarroa Beherean 12.597 etxebizitzetatik 2.599; eta Zuberoan 7.560 etxebizitzetatik 1.535.

## Eusko Jaurlaritzak 1.047 etxebizitza huts eskuratu ditu

Eusko Jaurlaritzak Bizigune programa abiatu zuen iazko irailean. Programa honen helburua etxe hutsak eskuratzeko, eta prezio sozialean alokairuan sartzea da. Sei hilabete igaro dira programa indarrean jarri zutenetik, eta denbora honetan 1.047 etxebizitza huts eskuratu dituzte horietatik 37 Donostian. Hala ere, 592 besterik ez dituzte alokairuan jarri. Izan ere, Bizigune programak etxebizitzak berritzeko aukera ematen dio jabeari, eta berritze lan hauek hiru hilabete irauten dute, batez beste. Jabeak gehienez ere 18.000 euroko laguntza jasotzen du etxea berritzearen truke, baina ondoren Jaurlaritzak jabeari hileko alokairutik kentzen dio kopuru hori. Maizterrak alokairu soziala ordaintzen du, baina jabeari merkatu prezioa ordaintzen zaio. Hau da, maizterrak 240 euro ordaintzen ditu hileko, batez beste. Jabeak, aldiz, 519 euro jasoko ditu hileko. Bien arteko alde Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburu Javier Madrazoren arabera, "bidegabekia eta jasan ezina da Euskadiko hainbeste etxebizitza huts egotea. Etxebizitza huts gehiago lortzen goazen heinean, etxe gutxiago eraiki beharko da". Hala ere, babes ofizialeko etxeak eraikitzea beharrezkotzat jotzen du arazoari irtenbidea emateko. "Beharrezkoa da babes ofizialeko beste 50.000 etxebizitza eraikitzea arazoarekin amaitzeko; babes ofizialeko 10.000 etxebizitza eraiki behar ditugu urtero".

etxebizitza sozialak eraikitzen dituzte. Etxebizitza sozialak, oro har, alokairuan ematen dira, eta oso merkeak izaten dira. Hala ere, etxebizitza sozialak oso gutxi dira gurean.

Nekane Jurado ekonomilaria oso kritikoa da herri erakundeen, eta bereziki Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikarekin. Berak esandakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza arloan duen plangintzan, 2000 eta 2003 urteen artean 6.050 etxe alokairuan jartzeko erabakia hartu eta horretarako dirua gorde zuen, baina 3.500 baino ez zituen atera. "EAE da Estatu osoan Lurzoruaren gaineko Legerik egin ez duen autonomia erkidego bakarra" gehitu du.

Duinako kideen ustez ere, beharrezkoa da etxebizitza merkatuaren logikatik ateratzea. "Denok dugu etxebizitza duina eskuratzeko eskubidea. Hau ez da etxebizitza bat erosi ahal izateko eskubidearekin nahastu behar, eskubide hori ez baita existitzen. Gu erakunde publikoek kudeatutako alokairuzko etxebizitzaren alde gaude", esan digute. Beraien ustez, Udalak dirua etxe berriak egiten xahutu beharrean, lurra erosteko, etxe hutsak eskuratzeko, eraikuntza zaharrei erabilera emateko, eta etxe horiek alokairuan jartzeko erabili beharko luke.


Hala ere, arazoaren tamaina ikusita, "beharrezkoa da merkatuaren logika honi aurre egitea, eta etxebizitzak guk geuk eskuratzea. Egun Donostian 500 etxe okupatzaile inguru daudela uste dugu. Okupazioa hedatzea beharrezkoa da, behin betiko neurriak hartzen diren bitartean", esan digute. Okupazioaren despenalizazioa ere eskatu dute, beraien ustez, okupazioaren bidez etxebizitza eskubidea gauzatu baino ez baita egiten.



Alberto Eloseggi

## Etxebizitza huts gehien duten kaleak:

Kalea	Etxebizitzak guztira	Etxebizitza hutsak	Portzentaia
Amezketarren kalea	592	101	%17
Antso Jakitunaren hiribidea	758	180	%24
Arrasate kalea	392	133	%33
Askatasunaren hiribidea	299	121	%40
Carlos II.aren hiribidea	1.104	174	%15
Catalina de Erauso kalea	861	151	%17
Colon pasealekua	461	104	%22
Easo kalea	563	180	%32
Egia kalea	629	104	%16
Erregezainen kalea	502	122	%24
Eustasio Amilibia kalea	589	117	%20
Hernani kalea	231	83	%36
Hondarribia kalea	321	123	%38
Hemz pasealekua	628	135	%21
Isabel II.a hiribidea	1.083	215	%20
Jose Maria Salaberria kalea	950	149	%15
Kannengo Ama kalea	1.209	144	%11
Madril hiribidea	1.117	170	%15
Matia kalea	494	132	%26
Prim kalea	506	164	%32
San Bartolome kalea	455	121	%26
San Frantzisko kalea	748	136	%18
San Martin kalea	586	170	%29
Secundino Española kalea	602	135	%22
Urbietza kalea	625	169	%27
Zabaleta kalea	798	169	%21
Zarautz hiribidea	743	127	%17
<b>Donostian guztira</b>	<b>82.684</b>	<b>14.208</b>	<b>%17</b>



Alberto Eloseggi

# «Diskurtso ofizialaren beste ikuspegia eman dut beti»

Donostiako irratigintza-ko ahotsik ezagunena da Mariano Ferrer. Hiru hamarkada pasatxo egin ditu Herri Irratiko tentpluan, errealitate politiko-soziala biluziz. Zorroztasunez. Ironiaz. "Kioskoa" ixteko asmoa du aurten. Maisuarekin bildu gara, azken lezioa jasotzeko asmoz.

Iñaki Lazkano

Herri Irratian askatasun osoz egin duzula lan aitortu izan duzu. Kazetaritzan posible al da independente izatea?

Libre izan naiz; libre erabat. Frankismoaren sasoian mugak izan nituen. Ondoren,

bitartekoen muga besterik ez. Ofizialki kontatzen zenaren aurrean, beste gauza batzuk kontatzeko erabakia hartu nuen. Kontatzen zigutenaren inguruan ironizatuz. Hortaz, entzuleei diskurtso ofizialaren beste ikuspegi bat eskaintzean oinarritu da nire kazetari bokazioa. Lehen eta orain. Komunikabideak zenbat eta garrantzi gutxiago izan, orduan eta errezagoa da libre izatea. Komunikabideak garrantzi handiagoa duen heinean, orduan eta zailtasun gehiago duzu aske izateko. Botere-tsuak arriskuan jartzeko aukera handiagoak baitituzu. Komunikabide txiki batean egin izan dut lan beti. Ondorioz, ez dut askatasunaren prezioa zein den jakin ahal izateko adina botere mediatiko eduki inoiz. Hori argi utzita, uste dut askatasun osoz egin izan dudala lan. Frankismoaren sasoian Herri Irratia askatasunaren faroa izan zen.

Egin egunkarian zuzendari aritu zinen sasoiko oroitzapen gazi-goza duzu, ezta?


Gazia, gozoa baino. Oso polita izan zen hastapenetan. Herriak egitasmoari eskaini

zian atxikimendu handiarengatik, batik-bat. Baina errealismo ezaz jokatu genuen. Ez zegoen irudikatu genuen oinarri ideologikorik. Horretaz gain, *Deia* egunkaria gu baino lehenago irten zen kalera. Bitarteko gehiago zituelako, eta diseinua pirateatu zigutelako. Izan ere, *Egin*-eko Bilboko delegazioko erredakzioa izan zen *Deia* kazetaren zuzendaritza. *Egin*-etik alde egin zuten; eta, amaieran, aurrea hartu zigiten. Euskal Herria osoaren egunkari izateko asmoz sortu zen *Egin*. Abertzaleen egunkari izateko, bereziki. Kalera irten aurretik, ordea, *Deia* egunkariak lekua bereganatu zuen prentsan EAJko egunkari bezala. EAJkoak ez zirenen egunkari bihurtu zen *Egin*. Irten aurretik markatu gintuzten. Horrek kalte handia egin zigun.

Geroago, zailtasun ekonomikoek *Egin* egunkaria eusten zuen kapitalaren esku aldaketa ekarri zuten. Horren eraginez, aldaketak izan ziren administrazio kontseiluan. Eta, ondorioz, aldaketa politikoa gertatu ziren. Aldaketa horiek onartu ez nituenez gero, egunkaria utzi behar izan zuen. Ezin zaie errua norberaren etsaiei egotzi bakarrik, ordea. Arazoaren parte handi bat nirea izan zela aitortu behar dut. Orduan orain dakidana jakin izan banu...

Nazionalismoaren ahultasun mediatikoa eta EAJk kazetaritzaren esparruan izan duen jarreraz gogoeta interesgarria egin zenuen duela ez asko.

EAJk ez du aintzat hartzen jakin herri egitasmoaren eraikuntzan EAJkoak ez zirenen baina herri ideia bat zutenen laguntza. Sektore horiek herria egiteko balizko laguntzaile gisa hartu ordez, bere herri egitasmo zehatzaren etsai gisa ikusi ditu EAJk. Jaun eta jabe zarenean hala jokatzea ulergarria izan daiteke. Baina une kritikoa iristean –2001ekoa, kasu– zera galdetzen diozu zure buruari: zer gertatuko litzaioke EAJri telebista eta irrati publikoak galduko balitu?... Baina ez bakarrik EAJri, Euskal Herria herri bat dela sentitzen duten guztiei ere. Herri ideia bat duen alderdi batek babestu beharko luke



Alberto Elsoegi